



... ANA URKIZA

Erabakia gizonezkoengan?



Gizonezkoek erditu beharko balute mundua desagertu egingo litzatekeela dioen leloa askotan entzun izan dugu emakumeen ahotan. Baieztapen horren aurrean, inor gutxi auzartuko dela uste dut kontrarik esatera, ez beharbada horrela ez litzatekeelako, bai zik eta erditzea emakumezkoari dagokiolako (oraingoz bederen).

Lelo horrekin batera maiz entzuten dugun beste kezu batzuk hilerokoa naturak emakumeari ezarri dion zigorra dela edo eta antisorgailuen ardura ere emakumeak izan behar izaten duela dira, besteak beste.

Gaur egun okagarritzat jo daitekeen ikuspuntu horren sakonean, ostera, badago emakumeak gogo onez ederresten duen zerbait eta zera da: hilerokoa duen bakoitzean, haurra izatea erabakitzen duenean eta erditzean ere, minaren erdi-dian, bere buruaren jabe sentitzen dela, bera dela, emakumea finean, erabakitzen duena. Eta hori, oso gustuko du. Beharbada, emakumeak berez erabakitzen duen eta horretarako eskubide osoa duen (ez leku guztietan tamalez) gauza bakarrenetarikoa da: haurdun gelditu edo ez gelditu, zenbat aldiz eta noiz ama izan.

Beraz, antisorgailuak hartzen egon behar izan arren, hilerokoaren molestiak jasaten edo erditzean gehiago ezin daitekeela sufritu pentsatu arren, emakumea bere buruaren jabe sentitzen da eta afera hauen inguruko eskudun bakarra.

Eskoziatik datorkigu ordea bestelako albistea. Gizonezkoentzako antisorgailu pilulekin arrakasta izan dutela; egindako frogak guztiak onak izan direla eta bost urteren buruan merkatuan izango ditugula.

Brabo ozen bat behar lukete horretan aritu diren zientzialariek, gizonezkoa, behingoz, haurdunaldiaren eta aitatasunaren inguruan, alde aurretik parte hartzea, erantzukizunen gain pentsatzera eta bikotearen harremanaren gainean orain arte izan duen baino ardura gehiago izatera gonbidatzea suposatzen duelako.

Emakumeok, ordea, kontu handia beharko dugu, hemendik aurrera geurea zen eskuduntza bakarra konpartitu beharko dugulako, eta berezko eskubide hori ere emakumezkoen eta gizonezkoen artean erdibanatu beharko delako, berdintasunaren izenean.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Eutsi gogor

Lehergailu ikaragarri batez Jerusalem birrintzea, desagertaraztea, izan zitekeela irtenbide bakarra esan zigun lagun judutar fedegabe batek, Israelgo abertzale baina arabiarren lagun, gu harrituz. Izugarrikeria dirudi, baina ulergarria da Hiri Santua zein hiri madarikatu bihur litekeen ikusita. Atentzio emangarria da, Camp Davideko porrotarekin, pena eta pozena. Lehenago aurka zeuzkan hainbat palestinar azaldu dira Arafaten alde, eutsi dielako eskakizunei, ez duelako amore eman. Ehud Barakek, berriz, eskaintza leuna egin duelako ditu aurka ultraeskuindarrak, eta eskerrak akordiorik ez duten lotu. Makina bat otoitz izango zen akordiorik ez delako lortu, eutsi zaiolako! Hemen ez daukagu Jerusalemik. Izan ere, hemen lehen pausoa ere ez dugu eman. Hori bai, batzuek eta besteek tinko eusten dieten errezoak ez zaizkigu falta.

Abertzaleok bat

• JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA 'TXILLARDEGI' •

[[DAZLEA]]

PSOEk buruzagi berria hautatu du: Rodríguez Zapatero.

Eta bere postua hartzerakoan, bere politikabide nagusia zein izango den esan du argi eta garbi: «lucha contra el terrorismo».

Hots, *terrorismo* hori Euskal Herrian bakarrik gertatzen denez: «lucha contra el desorden vasco anti-constitucional» adierazi nahi izan du.

Eta hori ez da batere berria: XIX mende osoan (eta XXan ere berdintsu) Madrileko gobernuen helburu nagusia horixe izan baita: «acabar con la Guerra del Norte».

Zenbat aldiz errepikatu beharko dugu Carlos Maria-Isidro eta beronen biloba zen Karlos Setimo famatuak Lizarran izan zutela Gor-tea; eta ez Murcian edo Torremollosen?

Eta Norte-ko betebeharrak horretarako, espainiar eskuinak eta espainiar ezkerrek bat egin dutela behin eta berriz. Eta Zapaterok atzo gauza berbera agindu diola Aznarri: «cuenta Vd. con el PSOE en su guerra norteña?».

Eta bat egin dute segituan, jakina, Savatarrek, Academia de la Historia, prentsa osoak, eta telebista kateek oro, eta gainerakoek. «Todos los españoles unidos, como en tiempos de Chindasvinto y el Duque de Alba» entzun da bazterretan. «Todos unidos en un sacrosanto Frente Nacional Español. ¡A por ellos!»

Eta frantsesek, noski, ezin dituzte irentsi «les excès localistes du particularisme basque. Maintenant, en pleine globalisation... Allez, allez!».

Eta Chevenement eta Mayor Oreja, bat... Noski! Beti bezala.

Eta gu, zer?

«Badirudi —badirudi diot nik, apalki— eraso orokor horri. Fronte

Abertzalea dagokiola. Zeharo dirudi, alajainkoa!».

Baina ez eta ez, eta inola ere ez.

Frente Español batu horri, gure arteko saltsa eta nahaspila omen dagozkio, ordea. Eta gure arteko herrak eta herrak azkartzea: «Madrilen kontra elkartuta? Ez horixe!».

Ezker aldetik, hori «inter-klasis-mo lotsagarria litzatekeela» entzuten dugu. Eta eskuin aldetik, «governabilidad, respeto al Orden Constitucional, orden, orden, orden, eta amén Jesús».

Taifa-keria arkaiko hori, jakina, oso urrutitik datorkigu. Giputxiok oso harro gaude oraindik Nafarroatik garaiz alden-du ginelako; eta Sanz askoz hurbilago dago Zululandiak eta Kontxintxinatik, Gipuzkoatik baino.

Nik, aldiz, aspaldi honetan Euskal Herriak egin duen urratsik garrantzitsuena Lizarra-Garazi dela uste dut; eta Udalbiltza dela gure tresnarik baliosena.

Hitz batez, nik Lizarra-Garaziri baieztatu osoa ematen diot. Mayor Orejak ezeztatu osoa ematen dion maila berean.

Badantzut, bai. «Lizarra-Garazi ez da behar heinean mamitu; Udalbiltzak ez du behar adinako laguntzarik hartu; han eta hemen oztopoak jarri dizkiote abertzale omen diren batzuek. Dena oso mantso doa». Eta abar.

Denok dakigu hori. *Michelinen* kontua aipatu zuenak ere badaki, eta aitortu ere egin du. Badakigu

eta berek ere badakite.

Baina, halaz ere, bidea Lizarra-Garazi da.

Aznarrek eta Mayor-Orejak aitortzen dute garbikiarik.

Udalbiltza oso motel doa, Lizarra-Garazi oso orokorra da...

Bai. Baina Lizarra-Garazi da bidea.

Kale-borroka ez da bidea. Guri zailtzen digu eginkizuna, eta etsaia-ri errazten.

Horregatik esan dut, eta orain errepikatzen, ez dudala kale-borroka ulertzen, eta ez onartzen.

Areago, gaurko geure honetan, eta indar-errelazioa eta inguramendu politikoa nolakoak diren ikusita, Lizarra-Garazi arriskutan jar dezakeen ezer

ez dudala onartzen, eta ez konpre-nitzen.

Auto-Determinazio prozesu bate-ra baldin bagoaz, bada garaia aldeko botoa eman dezaketenen iritziak eta joerak kontutan hartzeko. Politika, hori ere badela iruditzen zait.

Ala herriaren nahiaren kontra mamituko dugu guk Auto-Determinazioa?

Badakigu gure inguruko askoren abertzaletasunaren kaxkarra eta eskasa norainokoak diren. Ez gara atzo jaio politikaren mundura!

Baina horregatixek, Lizarra-Garaziri, bai.

Ados naiz erabat Elorrietak egindako azken deklarazioekin: «goizago ala berantago, mamitu egingo da Lizarra-Garazi».

Hori baita, gaur eta hemen, dugun bide bakarra.

“
Aspaldi honetan
Euskal Herriak egin
duen urratsik
garrantzitsuena
Lizarra-Garazi dela
uste dut